

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, OROZKOKO UDALAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA, 2011.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Orozkoko Udalaren 2011ko ekitaldiari dagokion fiskalizazio txostena mamitu du. Txostena aho batez onetsi dute Osokoaren kideek.

Kontu Orokorraren fiskalizazio txostenak -Udala eta bere sozietate publikoa barne hartzen dituenak- legezketasunari buruzko alderdiak besarkatzen ditu aurrekontu, sarrera, langileria, diru-laguntza eta administrazioko kontratazioaren alorrean; baita kontuen aurkezpenarekin lotutako kontularitzako alderdiak ere.

Legezketasunaren atalean, Epaitegiak udal jarduerari buruzko iritzi orokorra eman eta bere ekonomia-finantzazko jarduera arautzen duen araudia zuzentasunez bete dela adierazi du. Iritzi honi hainbat salbuespen egin zaizkio eta txostenean bertan daude jasoak.

Langileei dagokienez HKEEk adierazi du Udalak ez diela langileei 8/2010 LEDen defizit publikoa murrizteko aparteko neurri modura ezarritako ordainsarien murrizketa aplikatu, 2011n soldata masa murriztera eta soldata izoztera mugatuz.

Berebat, kontratazioari dagokionez gazte gunea kudeatzeko kontratuaren esleipena publikotasun eta lehia bidez egiteko beharra azpimarratu da; kontratu horrek indarrean darraio 2011n nahiz araudiak ezarritako epe guztiak gaindituak dituen.

Kontu Orokorrari dagokionez, Epaitegiak aldeko iritzia plazaratu du horren aurkezpen eta edukiari dagokionez; ordea, akatsa azaleratu du, besteak beste, kontabilitateari egindako hainbat doiketen ondorioz, Diruzaintza Geldikina 127 mila euroan eta Funtz Propioak 188 mila euroan murriztu dituztenak.

Zubiaur Eraikuntzak, SA sozietate publikoari dagokionez, HKEEk legea betetzeari eta urteko kontuei buruz duen iritzia aldekoa da, nahiz ez-betetze bat jaso den eta aipatutako kontuei hiru doiketa egiten zaizkien.

Halaber, HKEEk barne kontrolari eta kudeaketa prozedurei buruzko hainbat irizpen mahairatu ditu aurrekontu, kontabilitate, langileria, kontratazio eta diru-laguntzen arloetan.

Udalaren finantza egoerari dagokionez, 2009-2011 aldian gastuen egiturak aurrezki garbi positiboa erakutsi du; horrek, beste erakunde batzuek emandako diru-laguntzekin batean, inbertsio programa apalak finantzatzeko bide eman du; gainera, Diruzaintza Geldikin Erabilgarria oso txikia da. Bestalde, Udalaren eta Sozietate Publikoaren zorpetze bateratua handia dela esaten da.

Azkenik, txostenak 2012ko aurrekontuari egindako alegazioen analisisa jasotzen du atal batean, aurrekontua mamitzeari dagokionez HKEEren hainbat irizpen barne hartzen dituena; aurrekontua behin-behinean 2012ko uztailaren 16an onartu zen.